



Osasun garraioa, Bidean

Nafarroako Gobernuaren enpresa publiko bat hasi da zerbitzu hori eskaintzen / 2-3

GH Cranes & Components enpresaren Bakaikuko lantegiak 50 urte bete ditu / 6

Sustantzien eta pantailen kontsumoaz gaztigatzeko kanpaina egin dute / 5

Uztailaren 16an hasiko dira Irurtzongo eta Iturmendiko festak; igandean, Erkuden / 7-9

Ander Corchero Europako OCR Series Oztopo Txapelketan hamaikagarren izan da bere mailan / 12

2025eko Etxepare Saria banatu dute: 'Orkestra zooragarria' lanak irabazi du / 15

"Askoz ere eraginkorragoa, errentagarriagoa izanen da"

ALFREDO ZELAIA GOIKOETXEA LARRIALDIETAN TEKNIKARI ETA GIDARIA

Zelaiak 27 urteko eskarmentua du. Osasun garraioa enpresa pribatuek ematen zuten. Haietako batendako lan egiten zuen. Bidean enpresa publikoan ari da orain

A.A.I. BAKAIKU

Osasun kontseilari Fernando Dominguez Cunchillosek esan zuenez, "osasun eremuak pazientea inguratzen duen guztia eta haren beharrak barnebiltzen baititu. Alderdi horietako bat, funtsezkoa, pazientek lekualdatzea da". Horretarako, bikaintasunean oinarritutako kalitate eta segurtasun irizpideetan oinarritzen dira. Testuinguru horretan kokatu du Bidean enpresa publikoaren sorrera.

Nafarroako Gobernuaren Bidean sozietate publikoak maiztaren 31z geroztik herrialdeko garraio sanitarioaren zerbitzua ematen du. Aurretik egiteko hori azpikontratatu zuen eta SSG eta Baztan-Bidasoa enpresek ematen zuten. Aurreneko egun hartan hirurak aritu ziren lanean, "gure lehentasuna pazienteen segurtasuna eta laguntza jarraitutasuna uneoro bermatzea da", azpimarratu zuen orduan Bideaneko zuzendari kudeatzaile Alberto Lafuente Jimenezek. Baina egun hura pasata, garagarzarotik Bidean da osasun arloko garraioaz arduratzen den bakarra Nafarroan.

Zer da osasun garraioa?

Osasun garraioak bi atal ditu. Batetik, larrialdietako dago. Osasunbideak, lehen mailako arretak edo 112 larrialdiek ambulanzia bat behar dute, esaterako istripu bat izan duen pertsona bat lekuz aldatzeko. La-

rrialdietako ambulanziaz dauden egoitzak finkoak dira eta eguneko 24 ordutan langileak daude. Egoitza gehien-gehienak halakoak dira. Bestetik, programatutako osasun garraio zerbitzua dago. Dialisi tratamendua hartzerakoan jendea, kimioterapiara doazenak, erradioterapia, errehabilitaziora... Osasunbidearen zerbitzuaren barruan dauden paziente horiek guztiek tratamendua hartzerako joateko ambulanzia behar dute. Horri programatutako garraioa hots egiten zaio. Ez dakit zergatik, baina zerbitzua publikatu denez geroztik programatutako pazienteen garraioaren hazkunde handia izan da.

Orain arte osasun garraioa beti enpresa pribatuek eskaini dute?

Aspaldi Nafarroako Gobernuak ambulanzia publikoak zituen, baina Nafarroako Ospitalean lan egiten zuten bakarrik. Eskualde bakoitzean ambulanzia enpresa bat zegoen, esaterako, Etxarri Aranatzek Gregorio eta Altsasun Anbulancias Irubide zeuden. Enpresa pribatu horiek Osasun Ministerioarendako lanean hasi ziren, Nafarroako Gobernuak

"ENPRESA PRIVATUEI ORDAINITZEN ZITZAIEN IA DIRU BERAREKIN PUBLIKOTIK ZERBITZU HOBEA EMAN LITEKE"

oraindik osasun eskumenak ez zituenean. Nafarroako Gobernuak eskumenak bere gain hartu zituenean, ambulanzia ere bere gain hartu zuen. Zerbitzua eskaintzeko lehiaketak deitzen zituen eta irizpide batzuen arabera eskaintzarik onena egiten zuen enpresari ematen zioten osasun garraio zerbitzua emateko aukera.

Lehen nolako zen osasun garraioa?

Bidean martxan jarri den arte langileak enpresa pribatu bateko langileak ziren. Nafarroan gobernuarendako osasun garraioan aritzen ziren bi enpresa pribatu zeuden: SSG eta Baztan-Bidasoa. Aurrenak Otsagabia, Izaba, Zangoza eta Tuterako eskualdeak kudeatzen zituen eta Nafarroako gainerako eskualdeak Baztan-Bidasoaren ardura ziren. Haiek ibilgailuak eta teknikariak jartzen zituzten, baina ambulanzietan joaten ziren medikuak Osasunbidekoak ziren. Aparte, suhiltzaileak ambulanzien larrialdietako sarearen barruan daude, eta 112 larrialdi zerbitzuaren eskariaren arabera egiten dute lan.

Zergatik publikatu zuten zerbitzua?

Lan-mahai batzuetan gaia aztertzen zuten eta zera ondorioztatu zuten: enpresa pribatuei ordaintzen zitzaien ia diru berarekin publikotik zerbitzu hobea eman zitekeela. Eta Bidean enpresa publikoa sortzea erabaki zuten. Zehazki lan sozietate publikoa

da. Anbulantziak publikoak bihurtzeko formula hori egokiena zela erabaki zuen Nafarroako Gobernuak. Bidean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren parte da.

Beraz, ez da garestiagoa izanen?

Hasiera batean ez litzateke garestiagoa izan behar. Baina hasierak zailak izaten dira. Agian hasieran gehiago ordaindu behar da, baina egonkortu arte, jendearekin egindako lana eraginkorrago izaten hasten den arte.

Anbulantzia zerbitzua publiko egiteko eskaerarik bazegoen?

Betidanik egon da eskaera hori. Bai langileek bai pazienteen elkarrekin ere eskatzen zuten publikazioa. Bazter guztietatik egiten zen eskaera. Dirua sartu gabe zerbitzu ona ez zela ematen uste zuten. Izan ere, ambulanzia zerbitzua eskuratzeko lehiaketan diru eskaintza asko murrizten baduzu, horrek ondorioak ditu ibilgailuen kalitatean, gidarien eta laguntzaileen kopuruan eta gauza guztietan.

Publiko bihurtzeak zerbitzua hobetu du?

Bai, enpresa bakar bat da lurralde osoari, Nafarroari zerbitzu osoa estaltzen diona. Beraz, askoz ere eraginkorragoa eta askoz errentagarriagoa izanen da. Pertsonen lekualdaketa ere azkarrago egin daiteke. Ia-ia %100ean hobe daiteke. Zergatik? Azken finean, Nafarroa guztirako enpresa bakarra dagoelako, eta baliabideak gehiago optimizatu dira. Ez da lehen bezala, bi enpresa zirela, bakoitzak bere zerbitzua eskaintzeko eremu jakin batekin. Lehen enpresek beraien eskualdeko pazientek besterik ez zituzten lekualdatzen.



"ANBULANTZIA ETA ENPRESAREN BALIABIDE GUZTIAK ZERBITZUA EMATEKO DAUDE"

Gainera, enpresa publiko bat da. Hau da, ambulanziaz guztiak eta enpresaren baliabide guztiak zerbitzua emateko daude. Eskara dagoenean egoitza batetik bestera eraman daitezke ambulanziaz eta langileek. Azken finean, langileek enpresa berarendako lan egiten dute. Eta enpresa bakar horrenak dira material guztiak. Guztiz ongi egotean zerbitzua %100 hobetuko dela aurreikus daiteke.

Langileek alderik nabaritu duzue?

Subrogatu gaituzte. Dagoeneko ez gara enpresa pribatu batekoak, ez gaude pribatutan den kudeatzaile edo nagusi baten menpe. Enpresa publiko batean egoteak lasaitasun gehiago ematen du, azken finean administrazio publikoaren menpekoa zarelako. Hasierak kaotikoak direla kontuan hartuta, aldaketa zenbait arlotan nabaritu dugu, materialan, esate baterako. Orain ambulanziaz, arropa eta oinetako hobeak ditugu. Lehen ez genituen gauzak ditugu orain.

Langileek egoitza bat duzue lantoki gisa izendatuta?

Bai, langile guztiak egoitza batekin lotura dugu. Gehiengo Iruñekoan daude.

Beste inon pauso hori eman da?

Bai, lehenik Balear Uharteetan publikatu zuten eta, ondoren, Errioxan.

Suhiltzaileek zerbitzua eskaintzen jarraitzen dute?

Bai. Ez da txuritik beltzerako bat-bateko aldaketarik izanen. Suhiltzaileak larrialdietako sarearen barruan daude, eta larrialdietako sareak suhiltzaileen ambulanziaz kontuan ditu. Beraz, laguntzen jarraituko dute. Baita bigarren mailako sareak ere, hau da, Gurutze Gorria eta DYA. Horien ambulanziaz zerbitzua indartzeko erabiliko dira.

Bidean martxan jartzeko gobernuak inbertsioak egin zituen?

Bai, egin zituen. Batez ere ambulanziaz eta lanerako arropa eskuratzeko edo egoitzak egiteko lehiaketa publikoak egin zituen. Baina eginen lukeen ohiko zerbitzu izan zen.

Maiatzaren 31n hiru enpresak elkarrekin aritu zineten lanean. Zer moduzkoa izan zen erreleboa?

Erreleboa normal eman bazen ere, gauza batzuk hasieran ez zuten ongi funtzionatu. Baina, tira, hobetuz joan da.

Berritasunik izan da zerbitzuan?

Bai. Denbora errealean informazioa ematen duen sistema bat



Bidean enpresako anbulantziak egoitzan. UTZITAKOIA

jarri du Bidean enpresa publikoak. Aplikazio horren bidez pazienteek edo haien senideek etxetik gaixoa jasotzera pasa beharden anbulantzia non dagoen ikus dezakete. Uneoro eguneratzen da informazio hori. Edo senideek ikus dezakete, esaterako, errehabilitaziora joandako senidean etxerako bidean den, eta non dagoen. Hori guztia denbora errealean ikus dezakete. Publiko egin denetik egindako hobekuntzetako bat da hori.

Beraz, anbulantziak uneoro lokalizatuta daude.

Hala da. Orain anbulantzia guztiak Bideanen koordinazio zentroaren bidez lokalizatuta daude. Une oro dakite anbulantzia bakoitza non dagoen. Egun horretan, lan txanda horretan anbulantzia bakoitzean zein dagoen lanean dakite. Gainera, esan bezala, anbulantzia bakoitza non dagoen badakite. Horrela, esate baterako, jakinen dute anbulantzia istripu tokitik Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko larrialdi zerbitzura noiz iritsiko den. Baina are alderdi gehiagotan hobekuntzak izanen dira. Izan ere, bai 112ko medikuek baita larrialdietan zain daudenak iristear den pazientearen jarraipena egiteko aukera izanen dute etorkizunean. Bizi konstanteen berri jasoko dute. Pultsuaren, bihotzaren taupaden eta halakoen berri izanen dute. Berrikuntza horiek

guztiak pitteka-pitteka jarriko dituzte. Jakina, ezin da dena bat-batean jarri, ezinezkoa da. Jarri ahala funtzionatzen duen aztertu beharko da. Politikan gobernuei ehun eguneko graziatzeko epea ematen zaie. Halako zerbitzuetan, berriz, graziatzeko epea urtebetekoa da. Urte bat barru erabateko hobekuntza ikusiko dugu.

Altsasun egoitzetako bat dago.

Programatutako osasun garraiorako bi anbulantzia finko daude Altsasun. Eta zerbitzua indartzeko Iruñetik ere etortzen dira.

Zer diote erabiltzaileek?

Bada, larrialdietako erabiltzaileek ez dute aldaketarik nabaritu.

Halakoetan ez zaitu kezkatzen anbulantzia nolakoa den, zu eramatea da premiazkoena. Baina programatutako osasun garraioko erabiltzaileek nabaritu izan dute pixka bat gehiago atzeratu dela. Zeren ulertu behar baita jende berri asko ere badela, gidatzen hasten dena, programatua eramaten hasten dena. Beraz, hasieran pixka bat berandutu zen, baina hainbat gertakarik bat egin zutelako. Aldaketa garaian normalak direnak. Baina langileok konbentziturata gaude osasun garraioa publiko bihurtzea onura handia izango dela, batez ere gaixoendako. Horren alde egingen dugu argi eta garbi.

Datuak

- **17.177.300 euro** Bideanen aurrekontua.
- **432** Profesionalek osatzen dute Bideanen lantaldea.
- **400** Subrogatu dituzten aurreko enpresetako langileak.
- **110** Oinarrizko bizi-euskarriko eta aurreratuko anbulantziak. 76 anbulantzia lekualdatzetarako dira, eta 34 larrialdietarako.
- **61** Anbulantzia berri, renting bidez erositakoak.
- **49** Anbulantzia subrogatuak, guztiak bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna dute.
- **1** Obesitate morbidoa duten pazienteendako anbulantzia bariatrika bat ere, zerbitzu berria.
- **Egoitza nagusia** Iruñeko Agustinos poligonoan dago.
- **14 egoitza** Nafarroan barna, bat Altsasun.
- **11** Altsasuko egoitza dauden langileak, egunero 3.
- **2** Altsasun dauden anbulantziak. Bat larrialdietarako, bestea aurreikusitako bidaietarako.

ZURE PUBLI ZITATEA HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245 | 619 821 436
publi@guaixe.eus | publizitatea@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Oporrak, jaiak eta oroimena

“Aizan, hi, neska...! Ongi pasatzeko garaia iritsi dun! Arazoez ahanzteko unea, Ayusoren garagardoaren askatasuna dastatzeko. Gozatu jaiak eta ahaztu, ahaztu dena, ez pentsatu.”

“Hi, txo... Bukatu duk kurtsoa! Oporretan hago eta Euskal Herriko hiri, herri, auzo eta txoko guztietan jaiak hasi dituk. Ahaztu dena!”

“Aizue, neska-mutilak... Jan, edan eta lo...!”

Bai, bereziki lo egin dezazuen nahi dute. Sistemak lokartuta nahi zaituzte, pentsatzeko eta oroitzeko gogorik gabe.

Baina zuek gazte matxinatuak zarete, zaharren istorioak

mespretxatzen ez dituzuenok.

Haiengandik ikasteko prest

zaudete, opor garaian ere,

jaietan ere. Zaharren

esperientziak ikasten duzue;

beren oroitzapenak jaso eta

bizirik mantentzen dituzue. Ez

zaudete lokartzeko prest. La

Polla Records taldeak abesten

zuen *Las Batallitas del Abuelo*

kanta benetan ulertzen duzue

MEMORIADUN IZAKIAK GARA, JAIETAN ETA OPOR GARIAIN BAITA ERE, ETA EZIN DUGU AHAZTU

eta aiton-amonen irakaspenetatik ikasiz, gure historiaren oroimenaren kate-maila bilakatu zarete.

Bai, kurtsoa bukatu da, baina ezin dugu ezer ere ahaztu. Badugu memoria. Memoriadun izakiak gara, jaietan ere, opor garaian ere, eta ezin dugu ahaztu: ezin gogotik kendu joan zirenak, hemen ez daudenak, ezin bazterrean utzi bidegabekeriaren botaren azpian armaz eta gosez erailtzen ari direnak, gizakiaren gorrotoa jasotzen dutenak, euskararen alde, neke eta tai gabe, urtez urte, ari direnak.

Ez kasurik egin esaten dizutenei zertan sinesterik ez dagoela, eta dena ahaztuz eta pentsatu gabe mozkortzeko eta dibertitzeko, zeren eta oroimenik gabe dibertitzerik ez baitago.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Uda honetan ere, etxera!

SAKANAKO SARE

Uda bete-betean gaude eta herri zein auzoetako jai eta mobilizazioak egiten ari gara urteroko gisan Euskal Herriko hamaika txokotan. Opor eta jai giroak aldarriz bustitzeko egun ezin hobekak diren hauetan, aurten ere euskal preso, iheslari eta deportatuen auziaren konponbidea izango dugu aldarriz.

Oraindik ere urteetan zehar izugarriko sufrimendua eragin zuen gatazkaren ondorioak bizitzen ari garen honetan, gure herrietan gatazka horren biktimak izan zirenen egiaz, aitortza instituzionalaz eta erreparazioaz jardun nahi dugu. Biktimek behar beharrezkoak dituzte aurrera egiteko, iraganera lotzen dituzten korapiloak apurtu eta elkarbizitza agertokietara jauzi egin ahal izateko.

2026an beteko dira 15 urte ETAk bere jardura amaitutzat eman zuenetik eta munduan zehar gertaturiko gatazka gehienetan ez bezala, preso zein erbesteratuen auziak indarrean jarraitzen du gurean oraindik. Munduan zehar gertaturiko beste zenbait gatazketan, Hego Afrikan, Irlandan, Colombian edo beste zenbaitetan adibidez, bake prozesuak eta elkarbizitza agertokietara jauzi egiteko bideak ondorio guztien amaieraren kontestuan eman ziren, tartean, presoan auziei amaiera bateratu bat emanaz.

Gurea ez da horrelako prozesuen adibide eta oraindik orain, 126 euskal preso daude beraien zigorrak betetzen eta 18 iheslari zein deportatu daude erbestean etxera itzuli ezinik. Maiatzean egin genuen Puzlea osatu arte ekimenean 57 euskal preso beraien

zigorrak erregimen itxian ari direla betetzen mahai gaineratu genuen, guztiek, zigorrak erregimen irekian betetzeko baldintzak betetzen badituzte ere lege eta politika arruntak aplikatuko balitzaizkie.

Ezinbestekoa da etorkizunari begira eta elkarbizitza agertokietara jauzi egin nahi badugu aipaturiko ondorio guztiekin amaitzea.

Ezinbestekoa da biktimek horren beharrezko dituzten egia, aitortza eta erreparazioaren bideak amaieraraino jorratzea, eta, noski, ezinbestekoa da euskal preso, iheslari eta deportatuen auziari konponbidea ematea. Lege eta politika arruntak dira bidea, horiek ezartzeko eta aplikatzeko borondatea falta da ordea.

Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!



OBJEKTIBOTIK

Ahateen begiralekua

Igerian ez denean, ahateak ibaira eroritako txipu baten gainean majo asko egoten dira. Horrek makina bat etxarriarren begiradak erakartzen ditu. Ebroko Ur Konfederazioak kontrakoa ez badio behintzat, aurki uretan dauden txipu gehiagoren gainean jartzeko aukera izanen dute ahateek.

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbizua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Etxarriarraz plazako zabalgunean. Behean nabarmenduta dauden datuak Nafarroako 2024koak dira. ARTXIBOA

Sustantzien eta pantailen kontsumoaz gaztigatzeko

Nerabeei eta haien gurasoei zuzendutako kanpaina egin dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako prebentzio teknikariek. Batzuek eta besteek eskutitz bana jaso dute. Nerabeen kasuan oparia ere

SAKANA

Leitza, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Programen aurtengo udako kanpainak *Burua piztu, aukerak eraiki!* izenburua du. Prebentzio teknikariek azaldu dutenez, "aurtengoa 15 eta 16 urteko nerabeei eta haien familiei bideratuta dago. Helburua da nerabeen artean substantzien eta pantailen kontsumoa prebenitzea eta adina atzeratzea. Horretarako, udako oporraldian aisialdi alternatibo, aktibo eta osasuntsu baten aldeko aldarria egin dugu", azaldu dute.

Prebentzio teknikariek gaztigatu dutenez, "udako oporraldia nerabeendako aisialdirako garaia da, aukera paregabea atsedean hartzeko, esperientzia berriak bizitzeko eta sozializatzeko. Baina, aldi berean, denbora libre gehiago izatean, eguneroko errutinararen hausturek eta lagunarteko presio sozialak arrisku faktore bihurtu daitezke, substantzien kontsumo-

rako, lehen esperientziak hasten diren unea izaten baita".

Kanpaina

Aurtengo kanpainarekin prebentzio teknikariek nahi dute nerabeek "burua aktiboki erabiltzea, sormena eta sozializazioa sustatu, droga edo bestelako substantzien kontsumoa atzeratu eta

saihesteko". Horretarako, batetik, 800 familiari eskutitz bat bidali diete. Eta, horrekin batera, alkoholari eta pantailak segurtasunez erabiltzeari buruz Nafarroako Gobernuak argitaratutako esku-orria bidali diete. Gainera, udan aplikatzeko baliagarri izan daitezkeen aholkuak ere eskaintzen zaizkie familiei.

Bestalde, nerabeek udara haien modura, buruarekin pentsatuz eta aukeratuz, presiorik gabe bizitzeko gonbitea egiten dien eskutitza jaso dute. Aisialdi aktibo eta osasuntsu baten aldeko aldarria egiten da idatzian. Eskutitzarekin batera *Burua piztu, aukerak eraiki!* logoa duen hiru marradun joko bana oparitu zaie. Horrekin irudikatu nahi izan da burua erabiltzearen, lagunarteko zein familiarreko sozializazioaren eta aisialdi osasungarriaren garrantzia. Gai horien inguruko informazio gehiago nahi duenak bere eskualdeko prebentzio teknikariarekin harremanetan jar daitezke.

Kontsumoak

- **Bataz beste 15,8** urterekin hasten dira alkohola kontsumitzen.
- **Nerabeen %40,2k** alkohola erosi edo lortu du azken hilabetean.
- **Nerabeen %95,3k** uste du erraza edo oso erraza dela alkohola eskuratzea.
- **Erdiak** mugikorrarekin egiten du lo. Bostetik bat gauean mugikorrera konektatzen da.



Lakuntzako estalpea mustuta

Lakuntzako Udalak plazan eraikitako estalpea ostiralean mustu zuen eta herritarrendako auzatea izan zen. Oihane Uribe-etxeberría Garmendia alkateak gogora ekarri zuen parte hartze prozesu baten eta boto bidez lakuntzarrek estalpearen inguruak aukeratu zituztela. Estalpeak 237.825,50 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan du.



Ayuntamiento de Iturmendi
Iturmendiko Udala





Enpresak 20 langile ohiri (lau ez ziren egon) eta lan istripuan hil zen Miguel Auzmendiri aitortza egin zien.

"Garabi baten bizia oso luzea da, 50 urtera irits daiteke"

JOSE ANTONIO ETA ALEXANDER GUERRA GHKO ZUZENDARIA ETA KOMERTZIALA
GH Cranes & Components enpresak Gipuzkoatik kanpo egin zuen aurreneko lantegia Bakaikukoa izan zen. Hark 50 urte bete ditu.

A.A.I. BAKAIKU

Bakaikuko lantegia bere 50. urteurrenean ikusarazteko ekitaldia egin zuten joan zen ostiralean. Bakaikukoa penintsulako merkaturako egoitza zentrala da. Gainera, "Bakaikun lan egiteko modua da kanpoko lantegietara esportatzen duguna". Enpresak Bakaikuko lantegirako hainbat proiektu ditu.

GHren lantegi bat Bakaikun. Zer-gatik?

Alexander. Beasainen hasi ginen 1958an. Hangoa handitu beharra

genuen. Inguruan ez zegoen lursailik. Bila hasi eta hemen bukatu genuen.

Joan zen urtean lantegia berritze-ko lanak egin zenituzten.

Jose Antonio. Urte asko darماغu hemen. Azken urteetan inbertsio gehiago egin ditugu kanpoan hemen baino. Egin diren gauza guztiak hemendik kanpo egin dira. Duela bizpahiru urte esan genuen barrukoak ere berritu behar zirela. Bakaikukoa zen beharbada okerren edo gauza gutxien egindako

zentroa zen. Modernizatzeko, garbitzeko eta ongi jartzeko erabakia hartu zen. Lehendabiziko gauza izan zen teilatua aldatzea (amiantoa kentzea). Joan zen urtean erdia aldatu zen, eta aurten beste erdia aldatuko da. Kanpoko itxura garbitu eta makina zaharrak aldatu genituen. Horretan gabiltza.

A. Teilatuan eguzki plakak jartzeko aukera mahai gainean dago. Altsasuko lantegian probarako jarri genituen batzuk. Ea zer ematen duten.

Bakaikuren aldeko apustua da?

A. Bai. Azken finean, hemen lana ateratzen da. Eta hemengo jendeari erakutsi behar zaio hemen ere inbertitzen dugula.

Zenbat langile daude Bakaikun?

J.A. 80-85 langile inguru.

Langileak bilatzeko, zer moduz?

A. Gaur egun zailtasun handia dago teknikariak eta aurkitzeko. Lan pixka batekin opatzen da, kostata bada ere, momentuz jendea aurkitzen ari gara. Gutxienez Lanbide Heziketako goi mailako zikloa behar dute. Soldatzaileak, galdaragileak eta elektrikariak daude tailerrean.

Zer egiten da Bakaikun?

J.A. Beasain, Bakaikun eta Altsasuko lantegien artean zubi-garbiak bukatzen dira. Nagusia Beasainen dago. Bakaikuko lantegia galdarategi handi bat da. Habeak eta egiten dira. Gainera, zubi garabi batzuk hemen bukatzen dira. Altsasukoa mekanizatzeko lantegia da. Han zubi garabien beste parte batzuk egiten dira.

Errailen gainean mugitzen zen garabia kendu zenuten. Halakorik egiten segitzen duzue?

A. Bai. Munduan barna asko saltzen ditugu, eraikuntzarako, obretarako, tunelak zultzeko makinak eta halako kargak mugitzeko... Hemengo zaharkituta zegoen eta kendu genuen. Etor-kizunean erabakiko da beste bat jarri edo ez. Sinbolo bat zen.

Mantentzea eskaintzen duzue?

J.A. Hala da. Oso negozio garrantzitsua da hori guretako. Garabia baten bizia oso luzea da, lasai-lasai 50 urtera irits daiteke.

Teknologiaren aurrerapenak?

A. Bai, berrikuntzak iritsi dira. Azken berrikuntzekin garabia

guztiaren funtzionamendu dena mugikorrean, aplikazio edo Interneteko plataforma batean monitorizatu dezakezu. Horrekin ikusi dezakezu garabiak zenbat ziklo, altxatze egin dituen. Dagoeneko 4.0 eta 5.0 industria sartzen goaz pitteka. Horrek laguntzen du higadurak non dauden zehazten, zenbatean gerta daitekeen higadura edo matxura hori. Joan aurretik zer egon daitekeen hautsita badakizu, eta prestatuta joan zaitezke.

Ikerketa eta garapena baduzue?

A. Bai, gure Beasaingo plantan dugu. Beraiek monitorizatzen eta ikerketa horiek egiten dituzte. Garrantzitsua da ikerketan inbertitzea. Gure apustueta bat da. Inbertsio horiek egin behar dira, etorkizuna hortik heldu da.

Lehengaiak eskuratzeko, zer moduz?

J.A. Alde horretatik ez dugu arazorik. Orain dela hiru urte hornigai elektrikoaren krisia izan zen. Baina ditugun hornitzaileek lehentasuna eman ziguten eta nahiko ondo erantzun genuen. Lehiakide batzuek beraien produktuak emateko epeak, beharbada, sei astetik hogeitastera pasa ziren. Baina gu, gutxi gorabehera, lehengoan mantentzea lortu genuen.

Muga zergak, gerrak... Eragiten dizue?

A. Ziur baietz. Halakoek asko kaltetzen dute. Jendea ez dago lasai, zer gertatuko den ez dakite. Ondorioz, ez dute behar bezain azkar erabakirik hartzen. Badaude proiektuak, baina erdi geldituta, erabaki zain daude. Badirudi merkatua motelaldi batean dagoela. Donald Trumpek muga zergen iragarpena Aste Santuan egin zuenetik pixka bat nabaritu da erabakiak ez hartzea. Ea zenbat irauten duen. Espero dut motza izatea.

Nora saltzen duzue?

J.A. 70 herrialde baino gehiagotara. Herri batzuetara esportazioa egiten dugu. Beste herrialde batzuetan merkataritza bulegoa edo ekoizpen planta daukagu (AEB, Mexiko, Brasil, Polonia eta Saudi Arabian).

Zer aurreikuspen dituzue?

A. Beste horrenbeste urte, edo gehiago jarraitzea. Merkatua hobetzen edo egonkortzen joan dela uste dut.

J.A. Lanean segitu behar da. Hobe hain epe luzeko helbururik ez jartzea. Egunez egunera, futboleko bezala.



"PROIEKTUAK DAUDE, BAINA ERABAKI ZAIN DAUDE. MERKATUA MOTELALDI BATEAN DAGOELA DIRUDI"

FESTAK

ALTSASU

ERKUDEN

UZTAILAK 14 igandea

09:30 Erkuden ama birjinaren irudiarekin prozesioa ermitarantz abiatuko da, elizatik.

11:00 Irudiaren iritsiera eta meza, ermitan.

ONDOREN, Altsasuko udalak ardoa eta gazta emanen du, txistulariek joko dute eta zortzikoak dantzatuko dira.

IRURTZUN

UZTAILAK 16 asteazkena

12:00 Haurrendako jokoak, Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen.

13:00 Barazkigunearen irekiera, Barazkigunek antolatuta.

17:00 Kartelen erakusketa: Irurtzungo Festak 2025, udalbatza aretoan.

17:30 2024an jaiotako haurrei zapiak eta erraldoien eta buruhandien konpartaren ipuina banatzea.

18:00 Festak iragartzeko txupinazoa. Ondoren, erraldoi eta buruhandien konpartsa, gaitari, Orritz dantza taldea eta EZK txarangaren kalejira.

20:00 Orritz dantza taldearen emanaldia.

20:45 EZK txarangarekin dantzaldia.

21:30 Jauziak.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxea hasi eta Gernika parkeraino.

00:30 Oinutsik taldearen emanaldia.

UZTAILAK 17 osteguna

10:00 Dianak.

11:00-12:30 Haurrendako Margo Lehiaketa, plazako karpa. Oharra: Materiala antolatzaileek jarriko dute.

11:30 Joko eta herri jolasak, Gernika plazan.

12:00-14:30 Haurrendako Parke Handia, Foru plazan.

13:00 Pancho Balbuenarekin bermut musikala, Gernika plazan.

14:00 Herri bazkaria, Barazkigunek antolatuta, Atakondoako patioan.

Oharra: jantzi horteroez jantzita.

17:00 Aurpegi margoketa, Irurtzungo Pintura Gelaren eskutik, plazako karpan.

17:30 Barazki Gurdiarekin kalejira, Barazkigunek antolatuta.

17:00-19:00 Haurrendako Parke Handia, Foru plazan.

19:30 Haurrendako txokolata jana (zeliakoendako egokia), Foru plazan.

20:00 Xaiborrekin musika emanaldia, Foru plazan.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.

23:00 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta: Txep, Txartoak,

Atakondoa Punk School eta DJ Botxas, Barazkigunen.

00:30 DJ Kapitan General, Foru plazan.

UZTAILAK 18 ostirala

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia. Oharra: izena ematea

13:00ak arte, plazako arkupeetan.

14:30 Kaldereteak.

17:30 Bazkalostea eta

Elektrokelarekin kalejira.

17:30-19:30 Levelibular taldearekin zirku tailerra, Gernika plazan.

18:00 Afizionatuen Esku Pilota Jaialdia.

19:00 Karaokea, Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen.

20:00 Kresalarekin musika emanaldia.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazaraino.

23:30 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta: Amaiur 22, Mendeku, Bulkada eta DJ Boletus Rumberus.

00:30 Kresalarekin musika emanaldia. Ondoren, DJ Oixani.

ITURMENDI

UZTAILAK 16 asteazkena

KARMES EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.

12:00 Jai hasierako etxajua eta dantza modernoaren erakustaldia.

Meza nagusia.

13:00 Auzatea Gazte Asanbladaren eskutik, Ainhoa eta Adrik girotuta.

ARGAZKI erakusketa, auzogelan.

15:00 Gazte bazkaria. Ondoren, jolasak Gaztetxearen eskutik.

17:00 Herriko frontenis txapelketaren finala.

19:30 Haurren zapi banaketa.

20:00 Auzatea Gazte Asanbladaren eskutik, Pancho Balbuenak girotuta.

21:45 Zezensuzkoa.

00:00 Kontzertuak: TAKE Tributo A Kaos Etílico eta Kaos Rural, plazan.

02:16 Erromeria gaua, Gazte Asanbladak antolatuta.



ITURMENDI Karmes egunean hasiko dira festak. ARTXIBOA

UZTAILAK 17 osteguna

HAURREN EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.

12:00-14:00 Ur parkea.

12:58 GP Josu Etxeberria, Gazte Asanbladak antolatuta.

13:00 Auzatea.

Argazki erakusketa, auzogelan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

16:00-18:00 Puzgarriak.

18:30 Euskal dantzen ikuskizuna.

19:30 Haurrendako dantzaldia DJ Kaktusekin eta Piñata.

20:00 Auzatea.

00:00-03:00 DJ Boletus Rumberus.

UZTAILAK 18, ostirala

SANTA MARINA EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.

10:00 Santa Marinara igoerarako etxajua

12:00 Meza, Santa Marina ermitan.

13:00 Ardo kizarak herriko trikitilariek girotuta.

15:00 Bazkariak.



IRURTZUN 16an, festak. ARTXIBOA

18:00 Herrira jaitzierarako etxajua.

19:30 Auzatea, San Pedroaldan eta kalejira trikitilariekin.

20:00-22:00 Auzatea ehiztarien eskutik eta Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

22:15 Herri afaria, frontoian.

00:00-02:00 Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia.



ITURMENDI
UDALA – AYUNTAMIENTO



Antonio Vilches 'Kubala' eta Txomin Goñi, aurreko urteko kalderete txapelketako irabazleak.



Aurreko urteko txapelketan, saria jasotzen. NEREA MAZKIARAN / D. NOTICIAS

Kaldereteen artean

Kalderete txapelketa festetako ekimenik bereziena dela esan dute Txomin Goñik eta Antonio Vilches Kubalak aurreko urteko txapelketaren irabazleek. Egun horretan, aurten ostiralean, "herri osoa elkartzen" da eta giro "oso polita" sortzen da

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN
Veni, vidi, vici. Iritsi, ikusi, irabazi. Txomin Goñi Sarasola sukaldaria eta Antonio Vilches Corral *Kubala* sukaldari laguntzailea aurreko urtean lehenengo urtez aurkeztu ziren Irurtzun-

go festetan antolatzen den kalderete txapelketara eta lehenengo urtez ere irabazi zuten. Hamalau plater aurkeztu ziren. Uztailaren 18an, ostirala, izanen da aurten txapelketa eta txapela berresten saiatuko dira.

Kalderete on bat prestatzeko osagaiak "pazientzia, sukaldariaren eskua eta osagai onak" direla esan dute. Zeintzuk dira osagai horiek? Goñi: "Untxiarekin edo arkumearekin egiteko aukera zegoen, eta guk untxiarekin egin genuen. Gero barazkiak: piper berdea eta gorria, baratxuria, tipula eta azenarioa, hori guztia hasieran bota, eta gero patata".

"Goiz osoa" pasatzen dute kalderetea prestatzen: "Etortzen zarenean lekua hartzen duzu eta osagaiak prestatzen hasten zara. 10:30 aldera txistorra eta urdaia pixka bat egin hamaiketako hartzeko, eta gero patatak zuritzen joaten gara, untxia txikitu...". Pixkanaka egiten da lana. "Patatak azken hoge minutuetan egiten dira, eta untxia ordu erdian". Ordu eta erdi inguru pasatzen da hasten direnetik prest dagoen arte. 14:00etarako kalde-

reteak prest egon behar du: "Pixka bat kalkulatzen joan behar zara". Barazkiak "fin" moztu behar dira eta "garrantzitsua da patata labanarekin *txakatzea*, ez mozte". *Pintxeak* esan zuenez, "eskatzen nion guztia egiten zuen; lan guztia niretako".

Giroa

Kalderete lehiaketan "giro oso polita" sortzen dela esan dute: "Gauza polita da. Kuadrilla bat geunden askotan elkartzen garenak, eta normalean aurkezten direnak gazte kuadrillak dira, baina aurkeztea erabaki genuen". Foru plazan karpa bat jartzen dute, eta bertan gazte kuadrilla jartzen direla aipatu du Goñik, "eta arkupeetan zaharragoak garenak egoten gara". Bakoitzak bere tokia hartuta duela esan du, "eta gu hemen jarri ginen (medikuaren kontsultategiaren ondoan); goiz jaiki behar gara tokia hartzeko".

Udalak mahaiak, aulkiak, ogia "taldearen arabera", eta ardoa jartzen du, eta talde bakoitzak osagaiak eta suak. "Egun berean izena eman behar da; etortzen zarenean, tokia hartu, eta udal txera joaten gara izena ematera".

"GAUZA POLITA DA; NORMALEAN ELKARTZEN GARENAK AURKEZTEA ERABAKI GENUEN"

Kalderetea egin ondoren, plater batean jarri eta epaimahaian aurkezten dute prestatutakoa. Plater bakoitzak zenbaki bat dauka behean, eta zenbaki hori talde bati dagokio; Goñi eta Kubalaren kuadrilla Kaldereroak ziren aurreko urtean. Kuadrilla bat lehiaketatik kanpo gelditu zen paella egitea erabaki zutelako. Epaimahaiaren gustuaren arabera ematen dituzte sariak, ez dago rubrikarik. "Gehien gustatzen zaiena, horrek irabazten du". Diotenez, nahiko susmagarria da urte luzez berdinek irabazi izana.

Hamabi pertsonarendako kalderetea prestatzen hasi, eta 30 bat bildu zen azkenean mahaiaren inguruan aurreko urteko festetan: "Badakizu zer gertatzen den: bat etortzen zen eta gelditzeko esaten genion; beste bat hurbildu eta gera zaitez! Harategira joan behar izan ginen untxi gehiago hartzera". Azkenean, hainbeste jende bildu zenez, "nahiko justu" gelditzen zirela esan du Goñik. Guztira, zazpi untxi behar izan zituzten. Kubalak gehitu duenez, jatera bai apuntatzen zela jendea, "lanerako, ordea, ez".

Kalderete batendako ezinbestekoa "giro ona egotea eta ongi eramatea" dela esan dute irurtzunarrekin. Biendako festetako ekimen gogokoena eta bereziena da, plazan sortzen den giroagatik: "Herri osoa elkartzen gara, eta egiten ari zaren bitartean bata eta bestea etortzen dira...". Bazkalostean Elektrokela elektrotxaranga izanen da.

TALLERES GOÑI TAILERRAK

ONGI PASA FESTETANI!

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN
680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Urko Agirre Iturmendiko Kirol zinegotzia herriko frontoian.

Lehenengo egunean, frontenis txapelketa

Iturmendiko festak hasi eta gutxira Herriko Frontenis Txapelketaren Finala jokatu da. Ohitura handiko kirola dela esan du Urko Agirre kirol zinegotziak; guztira, 42 iturmendiarrek parte hartzen dute, eta finalak ikusmin handia sortzen du

E. R. B. ITURMENDI

Karmes egunarekin hasiko dira Iturmendiko festak, uztailearen 16an, asteazkenean, eta egun horretan ekimen berezi bat izanen da herrian: Herriko Frontenis Txapelketaren Finala. Maiatzaren hasieran hasi ziren txapelketarekin hamasei bikote helduen kategorian eta hamar haur haurren kategorian, Urko

Agirre Iturmendiko kirol zinegotziak azaldu duenez. Iturmen din ohitura handia dago frontenisera jokatzeko, eta finalak "ikusmina" sortzen du.

Duela bi urte hartu zuen Iturmendiko Udalak Frontenis Txapelketa antolatzeke ardura. "Bere garaian" gaztetxeak antolatzen zuen, eta berriz martxan jartzeke lekukoa hartzea erabaki zuen

udalak. "Hainbat herritarrek" parte hartzen zutela esan du Agirrek, "jendeak gustura hartzen du".

Guztira, 32 iturmendiarrek parte hartu dute helduen kategorian, eta haurren kategorian hamar. "Aurreko urtean helduen kategorian antolatu genuen bakkirik, baina ikusita harrera ona izan zuela, eta gazteak ere inte-

resarekin zeudela, aurten haurren kategorian antolatu dugu ere". 14 urtetik gora helduen kategorian da, "eta helduen kategorian 14 urteko neskek eta 50 urteko pertsonak daude".

Txapelketa

Iturmendiko Frontenis Txapelketa maiatzeko eta ekaineko ostiral eta larunbatetan jokatu da. Haurren kasuan "ez da hain txapelketa": astero bikote desberdinarekin jokatzeko joan dira, "pixka bat nahastuta jokatzeko"; zinegotziak azaldu duenez, helburu bakarra kirola egitea da. Helduen kasuan hamasei bikote ziren eta hasieran lau bikoteko taldeak egin ziren eta ligilla antzeko bat jokatu zuten; hortik hoberenak final laurdenetara pasa ziren, ondoren final erdietara eta, bukatzeko, festetako lehenengo egunean jokatu den finalean bikote txapelduna, txapeldunordea eta hirugarren eta laugarren sailkatuak ezagutu dira. Sariak herriko komertzioetako produktuak izaten saiatu direla esan du Agirrek.

Txupinazoaren ondoren kirola? "Nahita dago jarrita lehenen-

go egunean. Jende askok parte hartzen du. Beste urte batzuetan ere futbito partiduak egin izan dira, eta normalean lehenengo egunean izan dira. Ez da ajearen aitzakirik izanen!". Hala ere, baten batek esan dio festetan jende asko ikusten egonen dela eta nolabait lotsa pixka bat ematen diela.

Herriko festak

Iturmendiko festak "gogoarekin" espero ditu Agirrek. "Pixka bat urteroko plana. Lagunekin parranda pixka bat egin, familiarrekin egon... Herria elkartzeko aitzakia dira festak". Lehenengo egunean Karmes eguna da, "eta guk familia bazkaria egiten dugu". Hori da Agirrerren festetako untxo gogokoetako bat; bestea Santa Marinara lagunekin egiten duten erromeria da. Erromeria uztailearen 18an izanen da.

Uztailearen 16tik 20ra ospatuko dira Iturmendiko festak; lehenengo egunean Karmes eguna ospatuko dute, ostegunean Haurren eguna izanen da, 18an Santa Marina eguna, 19an Kaldere-te eguna eta azken eguna Jubilatuei eskainiko diete.

Vizu
ileapaindegia
Nerea
Vizuet Fernández

Ongi pasa festetan!

948 56 36 35
Zirrinkale, 5 | Iturmendi

AMONDARAIN
ETXEA

DENDA-KAFETEGIA

Ondo pasa festetan!

948921826 - Plaza - Iturmendi
casamondarain@gmail.com

ISABEL

Ongi pasa Iturmendiko festetan!

ILEAPAINDEGIA
648 77 47 01

LUR GEROA

BASOGINTZA
Ingenieritza eta Ikerketak Natur-Ingurunean
Ingeniería y Estudios en el Medio Natural



Mikel Arrizabalagak lasterketa itzela egin zuen. 4 minutu atera zizkion bigarrenari, Imanol Segurari.



Korrikako tartearen ondoren Dantzalekuko pistan egin zen. Irudian, Aratz Mendoza.



Sakana Triatloi Taldeko Ekaitz Berdud eta Aitzol Zelaia, boxetatik ateratzen.

Dantzaleku, triatleten paradisu

TRIATLOIA Dantzalekun jokatu zen XXIII. Sakanako Haur Triatloia, larunbatean. Juniorren mailan Mikel Arrizabalaga ikusgarri aritu zen, eta merezimendu osoz irabazi zuen. Triatloi campusean trebatu diren gaztetxo gehienek parte hartu zuten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
 Urdiaingo igerilekuetako obrak direla eta, aurten Dantzalekuk hartu zuen Sakanako Mankomunitateak antolatutako XXIII. Sakanako Haur Triatloia. 50 triatleta inguru zeuden izena emanda, tartean triatloi campusean parte hartu duten gazteak. Junior mutiletan Mikel Arrizabalaga altsasuarra (Sakana

T.T.) ez zuen areriorik izan (33:01) eta 4 minutu atera zizkion Imanol Segurari (Arenas, 37:04). Mutilen kadeteetan Enzo Sierra (Arenas) gailendu zen (35:45). Sakana Triatloi Taldeko Oihan Andueza bosgarren izan zen (40:47), Ekaitz Berdud seigarren (40:48), eta Saltokiko Aratz Mendoza zortzigarren (41:05). Aitzol Zelaia deskalifikatu egin zuten.

Haurren mutiletan Hiruki taldeko Mohamed Amin izan zen azkarrena (30:34). Sakana Triatloi taldeko Ekhi Arrese hirugarren iritsi zen (31:49), Beñat Goena laugarren (36:33), Mattin Lazkoz bosgarren (38:00) eta Aitz Berastegi seigarren (38:50). Aner Navarrok ezin izan zuen bukatu. Kimuen mutiletan Xuban Oterok (Hiru Herri) irabazi zuen

(19:29). Sakana Triatloi taldeko Erik Chavesek bosgarren bukatu zuen (22:47) eta Aratz Beltzak zortzigarren (25:37). Azkenik, mutilen benjaminetan Hiru Herri taldeko Aiur Otero gailendu zen (11:48), Sakana Triatloi Taldeko Pello Aranbururen aurretik (12:19). Xumai Lazkoz bosgarren izan zen (13:39), Kepa Igoa seigarren (13:41), eta

Araitz Lopetegik ezin izan zuen proba bukatu. Nesketan, Hirukiko Sumia Martinez izan zen azkarrena (12:57), Sakana Triatloi taldeko Laida Razkinen (13:06) eta Katixa Lopetegiren (14:48) aurretik. Malen Razkinek ezin izan zuen proba bukatu. Triatloi goiz ederrean, probaren antolakuntzan Sakana Triatloi Taldeak lagundu zuen.

PORTUKO
 Zure gosaria hemen!

Altsasu:
 948 563 822 (denda)
 948 467 153 (lantegia)
 Etxarri Aranatz:
 948 460 988

TX TXARTEL
 IGO FITXATEGIAK INPRIMATZEKO

Bidali zure fitxategiak webgunetik zuzenean

www.txartel.net

EGURDIAN
 sutarako egurra

608 57 03 57

kaxeta
 LIBURUDUNA

www.kaxeta.net
 628 542 519 | 948 460 477



SAKANAKO HARRI JASOTZE ESKOLA

Sakanako eskola, primeran

HERRI KIROLAK Sanferminetan mustutze ederra izan zuen Sakanako Harri Jasotze Eskolak. Eskolan trebatzen den Ane Zestauk irabazi zuen Emakumezkoen San Fermin Harri Jasotze Txapelketa, 2.812 kilo jasota. Maika Iraizoz laugarren sailkatu zen (1.169 kilo). Gaur, ostirala, gizonezko txapelketan Sakanako Eskolako Oskar Aguas lehiatuko da.

Imaz eta Gomez, Madrilen

TXIRRINDULARITZA Uztailaren 8an hasi eta 12an despedituko da 23 urtez azpiko Madrilgo Vuelta. Iker Gomez altsasuarra afizionatuen mailako Kern Pharma taldearekin lehiatzen ari da, eta Ekain Imaz juniorra Espainiako Junior mailako selekzioarekin. Madrilgo beroa eta bertako mendizerra eta etapa gogorak dituzte aurretik.



ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Sakandarrak, selekzioarekin

TXIRRINDULARITZA Tarazona de la Manchak Eskolarteko Espainiako Txirrindularitza Txapelketa hartu zituen asteburuan. Kadeteetan, Nafarroako selekzioko Enara Perez 23. sailkatu zen, eta Iker Agirre 52. Haurren mailan Eider Razkin 32. iritsi zen helmugara. Burundako Juan Carlos Gil de Gomez Errioxarekin lehiatu zen.



NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Gure gimnastak, Fest mailan topera

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakana Espainiako Federazioak Nafarroa Arenan antolatutako Fest mailan lehiatu zen. Kimuen taldeak hirugarren postua lortu zuen sailkapen fasean. Finaletan, kimuen eta haurren taldeak laugarren sailkatu ziren

M.B.G. SAKANA

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikako taldeak esperientzia ahaztezina bizi berri du Nafarroa Arenan. Espainiako Federazioak antolatutako formatu berri batean, Fest mailan, parte hartu zuten Iskizakoek. "Espainiako Txapelketetan parte hartzen ez duten estatu mailako taldeei zuzendua zegoen Fest maila. Helburua talde lana eta kirol balio onak sustatzea zen. Disfrutatze ko sortu den ekitaldia izan da" azaldu du Iskizako koordinatzaile Olaia Agirrek.

Hainbar komunitateko gimnastak bildu ziren. "Sortu den giroa ikaragarria izan da, primeran pasa dugu. Txapelketaz gain, jarduera ezberdinak egiteko aukera izan dute parte hartzaileek; esaterako, duela hilabete bat Europako txapeldun izan zen Espainiako selekzioarekin entrenatzeko aukera izan dute, ahaztuko ez duten esperientzia". Uztailaren 1ean Fest mailako sailkapen orokorra jokatu zen. Kimuen Iskiza (Itsaso Aldaz, Jare Aldasoro, Irantzu Garcia, Garazi Paularena eta Mara Prieto) hirugarren sailkatu zen. "Espero ez genuen dominarekin oso pozik bueltatu ziren etxera". Haurren Iskiza (Sarai Aldasoro, Ane Arratibel, Sofia de Sousa



Nafarroa Arenan jokaturako Fest mailan lehiatu ziren Iskiza Sakana gimnastak. ISKIZA SAKANA

eta Oneka Etxarte) lehenengo pasean hirugarren izan zen, baina bigarren faseko akatsak tarte ko, zazpigarren sailkatu zen. Uztailaren 2ko finalean bi taldeak laugarren sailkatu ziren, dominetatik oso gertu. "Ariketa akatsik gabe defendatu zuten, eta ikaragarriko sentsazio onarekin bukatu genuen txapelketa, pozik. Gure taldeen lanarekin oso harro gaude. Bi taldeek txapelketa ezin hobea egin zuten, urte osoko lana primeran defendatuz. Jarrera ezin hobearekin atera ziren Nafarroa Arenako pistara".



Iskizakoak, lanean. ISKIZA SAKANA



Ander Corchero, Europako Txapelketako suspentsiozko oztupoan. MEDIARACE

Ander Corchero, Europako OCR Series Txapelketan ikaragarri

OZTOPOAK Bere mailan hamaikagarren izan da. Postu horrek, agian, Mundialetarako txartela eman diezaioko

M.B.G. ALTSASU

Ander Corchero Fortuna altasuarak OCR Series (Obstacle Course Race) mailako probatan egindako lan bikainari esker, ekainaren bukaeran Lisboan jokaturako Europako Oztupo Txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen. Meritu handiz, bere kategorian hamaikagarren sailkatu zen, estatu mailan bigarren. "Europako Txapelketa batean hamaikagarren postua lortzea oso zaila da, maila ikaragarria delako. Kontuan hartuta estatu mailako lehena behin munduko txapeldun izan zela

eta bitan Europako txapelduna... bigarrena, oso pozik nago".

Europako Txapelketak 5 km-ko ibilbidean 25-26 oztupo zituen. "Nire txandan 12-14 kirolari ateraginen. Suspentsiozko oztupoan lehen postuan jarri nintzen, eta helmugaraino aurrean joan nintzen. Nire txandan lehena izan nintzen" dio Corcherok. European hamaikagarren izatea "ez nuen espero, hainbat faktorerengatik ez nintzelako nire maila hobereanean iritsi. Postu horri esker agian Mundialean parte hartzeko klasifikatzen naiz, baina oraindik ez dakigu. Itxarotera".



MARTIN EARLY

Urdiaingo protagonistak

TXIRRINDULARITZA Uztailaren 4an jokaturako kadeteen VII. Urdiain Sarian txirrindulari sakandarrak lasterketaren borrokan egon ziren. Ion Unai Gonzalez (Sakana Group-Alea) hirugarren izan zen, mendiko txapelduna, eta Xabier Curiel (Quesos Albeniz) laugarren. Talde onenaren saria Aralar klubeko Sakana Group-Aleak eskuratu zuen.

Sufrituta, baina Val d'Aranen bigarren

MENDI LASTERKETAK Amaia Razkin Medranok Hoka Val d'Aran by UTMB lasterketan lortutako bigarren postuari esker, 2026ko Chamonixeko CCC Ultra trailerako txartela lortu du. Beroarekin eta kazkabarrarekin "asko" sufritu zuen, baina erronka gauzatu zuen

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Amaia Razkin Medranok uztailaren 4an Hoka Val d'Aran Pyrenees by UTMB ultra trailean parte hartu zuen, UTMB Ultra Series txapelketarako baliagarria den Camins d'Her 110 kmko lasterketa ikusgarria (6400 m+ desnibela). Uharre arakildarra, meritu handiz, bigarren sailkatu zen.

Probak denetatik izan zuen. Antolakuntzak lasterketa 103 km-tara laburtu behar izan zuen, ekaitz elektrikoak iragarri zizuztelako. "Colomèrseko azken zatia laburtu zuten, eta azken gailurra igo gabe utzi zuten". Hala ere, 103 km oso gogor zituen aurretik.

Chamonix buruan

Razkinen helburua Top10ean sailkatzea zen, lehen 10 postuetan sailkatuz gero UTMB Ultra Series txapelketarako baliagarria den 2026ko Chamonixeko CCC Ultra Trailerako dortsala zuzenean lortuko lukeelako. "Asmo horrekin joan nintzen. Denbora batzuk jarrita nituen, eta proba nahiko ondo atera zen. Ez nuen espero, ez nik ezta inork ere, baina bigarren geratu nintzen. Ongi".

Azken 10 km madarikatuak

Ongi baino hobeto, egia esan. Mari Klakegg Fenre norvegiarrak irabazi zuen proba (12:31:45), Amaia Razkin bigarren izan zen (14:12:08) eta Elodie Pierre frantziarra hirugarren (14:24:05). "Klakeggen harrigarria izan zen. Bakarrik irteera puntuan ikusi nuen. Gainontzeak bai no koska bat gorago zegoen, argi dago". Uharre arakildarrari sufritzea tokatu zitzaion, probak denetarik izan zuelako. "Hasieran bero handia egiten zuen; eskerrak hornidura gune pilo bat zegoen. Gero kazkabarra hasi zen, euria... denetatik. Hotza pasatu nuen, baina zati hori nahiko eroso zen, ez zen oso tekniko. Hala ere, nahiko pisutsua egin zitzaiz-



Amaia Razkinek, helmugara iristerakoan, ezkila jo zuen. HOKA VAL D'ARAN BY UTMB

"HASIERAN BERO HANDIA, ONDOREN KAZKABARRA, HOTZA. ASKO SUFRITU NUEN" AMAIA RAZKIN

dan, hotzagatik hankak lokartzen hasi zirela nabaritu nuelako. Baina tarte hori gaintu nuen, eguraldia aldatu zen eta gero hobera joan zen". Benetako infernua azken 10 km-koa izan zen. "Azken 10 kilometroek 700 metroko desnibel positiboa zuten. Banekien tarte horretan asko sufritu behar nuela, eta hala izan zen: izugarri sufritu nuen. Uneoro atzera begira egon nintzen, hirugarren zetorrenak harrapatu behar ninduela uste bainuen. Azken momentura arte, ez nuen

sinetsi, azken igoera oso luzea egin zitzaidalako. Denbora asko galdu nuen bertan eta deseroso aritu nintzen, baina bigarren postuari eutsi nion" aitortu du. Azken une hori izan ezik, "nahiko gustura" ibili zela azaldu du.

Ibilbidean barna gurasoen eta Bartzelonan bizi den ahizparen babesa izan zuen, une txarretan ederki eskertuko zuena. Val d'Araneko lorpena "asteburuan ospatuko dut, sanferminetan".

Hurrena, Ultra Trail Guara

Chamonixeko CCC Ultra Trailera dortsala eskuratuta, Amaia Razkinen hurrengo erronka urriaren lehen asteburuan jokatuko den Huescako Ultra Trail Guara Somontano (82 km, 4700 m+) da. "Orain, erotu gabe, eta lasai hartuta, Guara prestatuko dut. Ea sentsazio onak ditudan eta disfrutatzen dudana, hori da garrantzitsua".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

Fauna aztarnak Aizti Ingurumen Zerbitzuak eskainitako tailerra; Etxarri Kanpinaren udako ekintzen barruan. Izena ematea: info@campingetxarri.com (12,9 euro).

11:00etatik 12:30era, kanpinean.

ASTEARTEA 15

IRURTZUN Kontzertua.

Bixentak taldearen kontzertua. 20:00etan, Pikuxar plazan. Irurtzun Udako zinema.

IRURTZUN Filma.

La familia Beneton filmaren emanaldia.

22:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 16

ETXARRI ARANATZ Festa.

Ur festa goxoa: ur jolasak, musika, afaria... Goza Bizi Sakanan programaren barruan. 11 eta 25 urte bitarteko gazteendako. Sarrera: 4 euro. 21:00etan, igerilekuetan.

OSTEGUNA 17

OLATZAGUTIA Urteurrena.

Barandi tabernaren 10. urteurrena. 12:30 Bermuteo.

19:30 Tardeo: urdaiazpiko ebakitzailea, pikoteoa...

20:00 El Gran Ritxarsonen kontzertua.


LAKUNTZA Festa.

Ur festa goxoa: ur jolasak, musika, afaria... Goza Bizi Sakanan programaren barruan. Gazteendako. 21:00etan, igerilekuetan.

OSTIRALA 18

OLATZAGUTIA Urteurrena.

Barandi tabernaren 10. urteurrena: Amaia Bootszen erakustaldia. 20:00etan, Barandi tabernan.



PIKUXAR

IRURTZUN Irurtzun Cocoli Aretaren Pirograbatuen erakusketa. Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.



DUELA 25 URTE...



Igerilekuak itxita

Altsasuko Dantzalekuko igerilekuak berritzeko lanak apirilean hasi ziren eta garagarrilerako despeditzea aurreikusten zen. Lanek 60 milioi pezetako (360.600 euro) aurrekontua zuten. San Joan bezperan ezezagunak igerilekuan sartu, eta kalteak eragin eta zituzten, lanen akabera atzeratu zuten. Ondorioz, bainua hartu nahi zuten altsasuarrek garilean Urdiango edo Ziordiko igerilekuetara joan behar izan zuten.

Er^oiti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es




Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Inixio Lazkoz Goñi

"Boli"

1945-02-04/2025-07-01

Euskera gudan do zuk emana,
hiketan eta noketan,
itzel goxuek zuk herriyen barna
zaindutako arboletan,
baatze txiki bet martxan utziezu
Zurkilloko errebutan...

Zoriontsu ziñen zu albiziora
libre aitzen ziñenetan!
Ahazten ez dana, hiltzen ez danes
fan orduko zaude bueltan,
libre ta frexko bizi zeitzezen
oroitzapenen errekan.


Eskerrik asko, modu batera edo bestera, ondoan izan zaituztegun guztioi

Etxekuek



EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 11



Larunbata, 12



Igandea, 13



Astelehena, 14



IRAGARKI SAILKATUAK

OPARITUTAKOAK

Bi arratoi-txakur kume oparitzen dira Etxarri Aranatz: Interesa baduzu deitu 699 780 772 telefonora.

GALDUTAKOAK

Arbizuko festetan, ekainaren 26an, gauean, Polar Pacer kirol erloju bat galdu zen plazan. Zer bait jakinez gero jarri harremanetan gurekin telefononon 626270446 (ñigo). Mila esker

OHARRA

Arakil eguneko bazkarirako izen ematea zabalik: Uztailaren 25ean izango da eta ekitaldia Egjarretan egingo da. Bazkarirako txartelak udaletxean eros daitezke. Informazio gehiago info@arakil.net

edo arakilakultura@gmail.com e-postara idatziz.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Euskara hutsezko Udalekueketa joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bideratuta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohainik dira, animatu!!

AEK-k euskaldun bat behar du Sakanan udan beste euskaldun batzuekin euskaraz ari-

zkeo, deitu 600 482 024 telefonora.

Uharte Arakilgo Udalak herriko kultura, kirol eta gizarte entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du: Deialdiaren oinarriak www.uhartearakil.eus web orrian.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Altsasuko Udalak irabazi asmorik gabeko entitateendako laguntzen deialdia zabaldu du: Deialdiaren oinarriak www.altsasu.net web orrian.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

Etxarri Aranazko abesbatza txikian izena emateko epea zabalik: 6 - 15 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohainik dira, animatu!!

Uharte Arakilen haurrendako udako aisialdi programan izena

emateko epea zabalik: Udan Euskaraz oporretako euskararen arnagunea eskaintza prestatu du. Informazioa udalekuean.

Olaztin Udan Euskaraz kanpainan izen emateko epea zabalik: Gargarilaren 23tik garilaren 18ra izanen da, Lehen hezkuntzako haurrentzat.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

Informazio gehiago Olaztin udalekuean edota 948 012 012 telefonora deituz.

Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Ostegun arratsaldetan, kafetegian bildu eta euskaraz hitz egiteko.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€

prezio hauek BEZa barne dute.

- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.

- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

guaixe
irratia^{107.3FM}

UZTAILAK 14 - 18

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Pentsaren azalak

10:20 Albistek eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena



On line

guaixe.eus/irratia/zuzenean

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

'Orkestra zooragarria', 2025eko Etxepare Saria

Gotzone Butron eta Aitziber Rayak irabazi dute album ilustratuak sortzeko sariketa. Sariketa lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, udazkenean. Sariketa Nafarroako hamasei toki entitatek antolatzen dute, tartean Sakanako Mankomunitateak

SAKANA

Ekainaren 30ean, Iruñeko Kondestable jauregian, 2025eko Etxepare Sariko sari banaketaren ekitaldia izan zen; Gotzone Butron idazlearen eta Aitziber Raya ilustratzailearen *Orkestra zooragarria* lanak irabazi du. Aurtun 29 lan aurkeztu dira hurrendako albumak sortzeko sariketara. Egileek 5000 euroko saria jaso dute, eta udazkenean Nafarroako Pamiela argitaletxeak liburua argitaratuko du.

Aitziber Akerreta ilustratzaileak, Idoia Sobrino liburuzainak eta Patxi Zubizarreta idazleak osatu dute Etxepare Sariko epaimahaia. Aipatu dutenez lan irabazlea erakargarria da "begiekin gozatzeko", eta kasu honetan ere "entzuteko". Alde batetik, bikain eta neurritsu" kontatua dago istorio "dibertigarria": "Ariak kantatzen aritzen den ama kantari bikain bat, animatietan ausartenak ere liluratzeko gai izateaz gain, egunerokotasuna itzulipurdikatzeko gauza dena".

Beste alde batetik, lanak musika klasikorako gonbita eskaintzen du, "ausardiaz ere": "Argumentuaren haria partitura bat dugu oraingoan, Laura Esquivel idazleak *La ley del amor* nobela egin zuen bezala, hiru kantu ditugu albuma irakurriz, ikusiz eta entzunez goza dezagun". "Gozatu" albuma hobekien deskribatzen duen aditza dela esan du epaimahaiak: "Egileek testu-illustrazio eder eta bihurrien bitartez, orekan eta harmonian, horixe eskaintzen digutela: gozamina".

Izenburuak dioen bezala, *Orkestra zooragarria*, musika eta fantasia "maistraki" elkarlotzen dira, eta umorea ere txertatuz. Epaimahaiak irudiak "oso onak" direla gaineratu du, eta testuarekin guztiz bat egiten dutela. "Erabiltzen diren plano, tamaina eta kokapen desberdinek lana borobiltzen dute". Bukaera, QR



Gotzone Butron eta Aitziber Raya, erdian, saria jasotzen.

GOTZONE BUTRONEK ETA AITZIBER RAYAK IRABAZI DUTE ALBUM ILUSTRATUEN SARIKETA

batzuk daude istorioan zehar aipatzen diren musika lanak irakurri bitartean aditu ahal izateko, "horrek irakurlea guztiz murgiltzen du eta gauza berriak ezagutzeko leiho bat irekitzen dio".

Ipuinean zehar ere toki, hizkuntza eta kultura aniztasun keinuak daude. "Espoilerrik egin gabe, haur guztiek etxean egiten ahal duten proposamen batekin bukatzen da ipuina eta hori orrialdeetatik kanpo fantasiarekin jolasean segitzeko gonbidapena *zooragarri* bat da".

Egilea

Aitziber Raya ilustratzaileak eta Gotzone Butron idazleak sortu dute Orkestra zooragarria. Raya Murgian jaio zen 2001. urtean, eta EHU eta Unibersitat Politecnica de Valencian ilustrazioko eta Diseinuko Gradukoa

ikasi zuen. Gradua amaitu ondoren, Sugaar argitaletxearekin lan egin du hainbat ilustrazio eginez, Zerbikas-en gidak ilustratu eta infografia ilustratuak garatu ditu Bartzelonako Gaudi Academia de Knowledge enpresarendako. Gaur egun, Diseinu eta Ilustrazioko master profesionalizatzailea amaitu berri du UPVn.

Butron 1965. urtean jaio zen, Urdulizen, eta Filosofian lizentziatua da. AEKko irakaslea eta koordinatzailea da Plentzian, eta Abusuko liburutegiko arduraduna 2006. geroztik. Idazle Eskolako graduondokoa egin du, eta 2021ean Bizkaiko Foru Aldundiko Ipuinak saileko *Sardinerak* ipuina idatzi zuen, eta 20022an lehiaketa berean *Nire Sarajevo, Bizkaldatz Jarraitzeko prest?* lanarekin narrazioa sailean hasi zen. 2024an Karmele Igartua sorkuntza beka eskuratu zuen, eta geroztik hurrendako ipuinen sorkuntzan ari da.


Nafarroako hamasei toki entitateen euskara zerbitzuek antolatzen dute Etxepare Saria hurrendako album ilustratuak sortzeko sariketa, tartean Sakanako Mankomunitatea.

Mikel Montesinosen argazki erakusketa, Iruñeko Geltokin

Hilaren amaierara arte Mikel Montesinos Jesus argazkilari altsasuarraren *Esencia Onírica* erakusketa Iruñeko Geltokin ikusgai izanen da. Erakusketa esposizio luzeko teknikarekin egindako argazkiez osatzen da; teknika honekin "zeta efektua" edo "argazkiarekin margotzea" lortzen dela esan du argazkilariak. Erakusketan Julia Zornoza Iriar-

teri eginiko omenalditxo bat ikus daiteke; Zornoza Montesinosen amona zen, eta Nafarroako lehenengo emakume argazkilarietako bat izan zen.

Esencia Onírica erakusketa Iruñeko Geltokin, ikus daiteke uztailaren 31ra arte, astelehentik ostegunera 10:00etatik 21:00etara, ostiraletan gauerdia arte eta larunbatetan 11:00etatik 00:00etara; igande eta jai eguntan itxita egonen da, eta 15etik aurrera 10:00etatik 17:00etara izanen da ordutegia.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Etxera



11 GALDERA



Maialen Uharte Arano, Euskalerria irratiko esatari arakildarra. UTZITAKOIA

"Topera gaude, baina festa giroan barneratzen gara"

Euskalerria irradian (FM 98.3) lan handiko egunak dira hauek. Hala ere, Ihabarko Maialen Uharte Arano esatariak sanferminez gozatzeko tarte hartzen du. Gaurko Dupla eta Zea Maysen kontzertuak eta asteleheneko Sorotan Belekua ditu jomugan

Maidet Betelu Ganboa IHABAR

1 Zenbat urte Euskalerria irratiko esatari?

Badira batzuk. Tartean lau urtez egon naiz eszedentzian haurren zaintzagatik, baina hamar urte daramatzat hemen lanean.

2 Sanferminetan topera ibiliko zarete lanean.

Bai, topera gabiltza eta ez bakarrik uztaillaren 6tik aurrera; aste batzuk lehenago hasten da presio hori, guztia prest utzi beharra baitago. 6tik aurrera gu ere festa giro horretan barneratzen gara, eta berezia eta polita izaten da.

3 Festak eztanda egiten duenean oraindik oilo ipurdia jartzen zaizu?

Sanferminetan badira errepikakorrak direla ematen duten gauzak, baina ezusteko handiak hartzen ditugu, berdintasun horretan, sanferminak beti direlako ezberdinak. Txupinazoa sanferminetako momentutxo bat

izaten da, eta une horretan denoi oilo ipurdi hori jartzen zaigu: suziaren eztanda, txistulariek Biribilketa jotzen dutenean...

4 Txupinazoa, non?

Niri kanpoko begirada hori hartzea tokatu zitzaidan. Erredakzioan egon nintzen, dena ongi atera zedila jarraitzen eta kanpoan zeuden lankideak laguntzen. Bi lankide Seminario etxean zuzeneko saioa egiten zeuden, beste bi udaletxe barruan, eta beste bi kale konexioak egiten, Iruñean bizitzen ari zena erakusteko. Nik guztia gainbegiratu nuen.

5 Sanferminetan Euskalerria irratiko ohiko programazioa hankaz gora jartzen da?

Bai. Hasteko, entzierroa ematen dugu zuzenean. Haritz Pascual lankidea bertatik bertara egoten da, baina nik estudiotik laguntzen diot. Horretaz gain, eta multimedia garez, webgunea elikatu behar dugu: eguneko albisteen

eta aktualitatearen berri ematen dugu, kalera atera eta bideoak edo elkarrizketak egiten ditugu, eta eguerdiro festen inguruko programazio berezia egiten dugu, Sanfermintza, gonbidatuekin, Zaldi Zuriko txokoa.

6 Festa egunen bat hartzeko aukera duzue?

Guztiok behintzat festa egun bat izaten saiatzen gara. Niri ostiralarekin tokatu zait, primeran, kontzertu itzelak daudelako: Dupla eta Zea Mays. Zea Maysek zerbait berezia prestatu du, eta guk berezitasun horretan parte hartuko dugu.

7 Zein da gehien gustatzen zaizun unetxoa?

Unetxoak edozein lekuan edo unean sor daitezke. Hor jarriko nuke ikusmira, sanferminak berezi egiten dituen kaleko giroa eta festa kalean dagoela baita. Hori esanda, niretako erraldioen agurra berezia izaten da, oso polita: udaletxe plazako azken

dantzak, Ezpeleta Jauregian euskaraz kantatzen zaienean... Horrek kitzikatzen nau, eta iruditzen zait hori ere badirela sanferminak.

8 Erraldioen agurrean, programa berezia egingo duzue aurten.

Horren polita denez, zerbait berezia egin nahi dugu. Seminario Etxeko balkoian programazio berezia egingo dugu 12:00etan. Kilikiak igoko dira, udal ordezkariak festen balantzea egingo dute, eta gonbidatu bereziak egingo dira.

9 Sanferminak eta euskara. Euskarak presentzia gehiago du?

Sanferminetan euskarak geroz eta leku gehiago du, agian oraindik ere gutxiegi, baina badira

euskaldun giro hori topatzeko lekuak: Oinez Txokoa, Herri Sanferminetako kontzertuak, egitarau ofizialeko kontzertu eta ekitaldi asko... Kazetari gisa, protagonista euskaldunak aurkitzeko zailtasun gehiago egon daitezke.

10 Hedabideetan sakandar asko zaudete sanferminen berri ematen.

Hala da. Egunotan Nerea Reparazekin, Anabel Arraizarekin eta Aritz Ganboarekin egin dut topo, baina gehiago gaude.

11 Lanetik kanpo, nola bizi dituzu sanferminak?

Bada aukerarik denetarako, sanferminez familian gozatzeko, eta lagunekin ospatzeko.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena

Abizenak

NA/IFZ

Helbidea

Herria

Telefono zenbakia

Emaila

Bankuko kontu korrante zenbakia:

ES



Foru plaza 23,1 Altsasu 31800 (Nafarroa)
948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus